



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

2022ko otsaila

HIZKUNTZEN ERABILERAREN KALE NEURKETA UEMAko udalerriak eta Tolosaldea, 2021

Emaizen txostena



Aurkibidea

1	Sarrera.....	3
2	Metodologia.....	4
2.1	Hizkuntzen Erabileraren Euskal Herriko Kale Neurketaren metodologia.....	4
2.2	Gune mugatueta hizkuntzen erabileraren neurketaren metodologiaren berezitasunak.....	5
2.3	“UEMA-Tolosaldea, 2021” neurketaren fitxa teknikoak	7
	Herriak	7
	Prozedurak.....	7
	Ibilbideak.....	7
	Landa-lana	7
	Unibertsoa, lagina eta emaitzen adierazgarritasuna	8
2.4	Ohar metodologikoak.....	8
2.4.1	Behatutako udalerriak.....	8
2.4.2	Bilakaeraren azterketa	12
2.5	Laginaren osaera.....	13
2.5.1	Herrien ordezkagarritasuna	13
2.5.2	Behatutakoen ordezkagarritasuna	14
2.5.3	Behatutako biztanleriaren ezaugarriak: sexua eta adina	17
3	Erabilera orokorra UEMAko udalerrietan eta Tolosaldean	18
3.1	Datu orokorra 2021	18
3.2	Hizkuntzen erabileraren bilakaera 2017-2021	19
3.3	Herrietako biztanleria eta euskara gaitasuna.....	20
3.4	Erabilera orokorra herrietako euskara gaitasunaren arabera. Bilakaera 2017-2021 21	
3.5	Erabilera orokorra herrietako biztanle kopuruaren arabera.....	22
3.6	Erabilera orokorra herrietako biztanle kopuruaren arabera. Bilakaera 2017-2021 23	
4	Euskal Herria eta eskualde euskaldunen arteko konparaketak.....	24
5	Hiztunen ezaugarrien arabera hizkuntza-erabilera.....	25
5.1	Sexuaren arabera hizkuntza-erabilera.....	25
5.2	Hizkuntzen erabileraren bilakaera sexuaren arabera. Bilakaera 2017-2021	26
5.3	Adinaren arabera hizkuntza-erabilera	27
5.3.1	Adin-talde bakoitzeko hizkuntza-erabilera, herrietako euskara-gaitasunaren arabera	28
5.3.2	Adin-talde bakoitzeko hizkuntza-erabilera, herrietako biztanle-kopuruaren arabera	29
5.4	Adin-talde eta sexuaren arabera hizkuntza-erabilera	30
5.5	Hizkuntzen erabileraren bilakaera adinaren arabera 2017-2021	31
5.6	Hizkuntzen erabileraren bilakaera adinaren arabera, udalerriaren gaitasunarean arabera tipologian 2017-2021	32
5.7	Hizkuntzen erabilera adin bereko taldeetan.....	33

6	Euskararen erabilera eta haurren presentzia.....	34
6.1	Haurren presentziaren arabera euskararen erabilera.....	34
6.2	Haurren presentziaren arabera euskararen erabilera, Udal tipologiaren arabera (gaitasuna)	35
6.3	Haurren presentziaren arabera euskararen erabilera, udalerriko biztanle-kopuruaren arabera	36
7	Emitza nagusiak (laburpena)	37
1	Eranskina. Tolosaldea 2021	40
2	Eranskina. Udalerrietako emaitzak: nagusiak eta adinaren arabera.....	49
3	Eranskina. Udalerrietako emaitzak: sexuaren arabera.....	60

1 SARRERA

Herriko euskararen errealitatea adierazteko funtsezkoa da kalean zenbat euskara erabiltzen den jakitea. Izan ere, soziolinguistika arloko eskarmentuak erakutsia digu erabilera dela hizkuntza baten egoeraren adierazle esanguratsuena eta fidagarriena.

Erabilera hori neurtzea ariketa konplexua da, ez baita jarduera arautua, ez eta patroia jakinei obeditzen diena ere. Horrenbestez, metodologia findua eskatzen du. Helburu horri erantzuteko asmoz, UEMA sortu eta garatu dugu hizkuntza-erabilera neurtzeko metodologia.

Kale erabileraren neurketaren metodologia horri esker, abantaila handiak lortzen dira herriko errealitatera hurbiltzeko, eta, beraz, funtsezkoa bihurtzen da herri mailan hizkuntza-errealitatea ezagutu edota planifikatu nahi duen edonorentzat. Batetik, lehen aipatu moduan, objektibotasuna lortzen dugu herriko errealitate soziolinguistikoaz aritzeko garaian. Gainera, herriko hizkuntza-egoera ezagutzeko beste hainbat datu badaude ere (errolako ezagutza datuak, ikastetxe eta euskaltegiak matrikulazio datuak...), datu horiek guztiak herriko kaleetan entzun daitekeen eguneroko jardunean nabarmentzen dira. Bestalde, ohikoa izaten da baliabide urriak edukitzea euskararen aldeko sustapen plan bat egitean, eta horrek premiarik handiena duten eremuak zein diren jakin behar izatera eramaten gaitu lehentasunak ezartzeko.

Ondorioz, kale neurketen emaitzak beharrezko bihurtzen dira lehentasun horiek ezartzeko edota datu xeheagoak eskuratze aldera. Izan ere, hainbat erabilera datu eskura ditzakegu neurketaren bidez, adin talde bakoitzak kalean euskara zenbat erabiltzen duen, besteak beste. Era berean, neurketa hauek maiztasun batekin eginez gero (bi urtez behin, bost urtez behin...), bilakaera ezagutu ahal izango dugu, eta modu horretan herrian izaten diren hizkuntza-aldaketak gertutik jarraitzea ahalbidetuko liguke.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) Soziolinguistika Klusterrarekin egin zuen dagoeneko 2017. urtean mankomunitatearen baitako udalerri gehienetan euskararen kaleko erabileraren neurketa. Era berean, Tolosaldeko eskualdea osatzen duten udalerrietan ere egin zen ikerketa hori. Horretarako, Soziolinguistika Klusterrarekin batera, biztanle gutxiko herrietan Kale Neurketen ohiko metodologia aplikatzeko moldaketak egin ziren, eta UEMA osatzen duten herri gehienetako gaur egungo erabilera datuak eskuratu ziren.

Aurtengo 2021eko edizioan, ikerketa bera errepikatu da, alegia, 2017an egindako udalerri horietan egin da behaketa, metodologia atalean zehaztuko diren salbuespenak, salbu.

Era berean, Galtzaundi Euskara Elkartearekin lankidetzan, Tolosaldeko UEMAkoak ez diren beste sei herrian ere egin da Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa. Hala, Tolosaldeko udalerri euskaldunen informazio osatuagoa eskuratu ahal izan da.

Txosten honetan, beraz, euskara-gaitasun maila altueneko eremuan kokatzen diren 93 udalerritako hizkuntzen kale-erabilera datuak jasotzen dira. Udalerri horietatik: 87 Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko (UEMA) kide dira. Horiez gain, mankomunitate horretako kide ez diren Tolosaldeko 6 udalerritako behaketak ere egin dira, eta, hala, eremu soziolinguistiko horretako errealitatea gertutik ezagutzeko aukera eskaintzen da.

2 METODOLOGIA

2.1 HIZKUNTZEN ERABILERAREN EUSKAL HERRIKO KALE NEURKETAREN METODOLOGIA

UEMAko zein Tolosaldeko herrietan egindako Kale Neurketaren oinarri metodologikoa Euskal Herri mailan egiten den neurketan garaturikoa da, baina kasu honetan herriko berezitasunetara egokituta. Kale Neurketaren metodologia "Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko Gida Metodologikoa" (Altuna, O; Basurto, A. 2013) argitalpenean jaso da (<http://www.soziolinguistika.eus/Gida>).

Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren Kale Neurketaren metodologia

Hizkuntza-erabileraren Euskal Herriko Kale Neurketa 1989. urtean egin zen lehen aldiz, eta geroztik zazpi alditan errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean, 2006an, 2011n, 2016an, eta 2021ean egin da azken behaketa. 2021eko ikerketa horren emaitzak oraindik argitaratzeko daudenez, txosten honetan egingo diren Euskal Herriko neurketari buruzko erreferentziak 2016koak izango dira. Izan ere, kasu hartan, orotara 515.000 hiztunetik gora behatu ziren kalean hizketan azken neurketan (2016). Gaur-gaurkoz, euskararen egoera zertan den ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia bilakatu dira datu horiek.

Kale Neurketan erabiltzen den teknika behaketa zuzena da; hau da, ezertxo ere galdetu gabe, neurtzaileek herriko kaleetan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen da. Hala, teknika honen abantaila azpimarragarrienetakoa neurtzaileek hiztunaren joera naturala jasotzen dutela da, datuen subjektibotasuna saihestuz eta emaitza fidagarriagoak lortuz.

Landa-lana

Landa-lana behar bezala egiteko, diseinu teknikoaren fasean beharrezkoa da aurrez bi datu zehaztea: ibilbidea eta neurraldiak, hain zuzen ere. Alde batetik, beraz, udalerri bakoitzeko kalerik jendetsuenak biltzea irizpide nagusitzat hartuz (plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa kaleak, eta abar) neurtu beharreko kale horiek finkaturiko ibilbidea(k) definitzen d(ir)a. Bestalde, neurketarako egun eta orduak zehaztu behar dira, helburu nagusia herriko biztanle guztiak (potentzialki behintzat) neurtzea izanik.

Elkarriketa-hizkuntza

Oinarrizko behaketa-unitatea taldeko elkarriketa-hizkuntza da, ez dugu norbanakoaren hizkuntza neurtzen. Beraz, ezinbestean, bi lagun edo gehiagoren arteko elkarriketak dira zenbatzen direnak. Dena den, egia da bakarriketa gisa ere jasotzen ditugula elkarriketa mota batzuk: adibidez, mugikorreko elkarriketen kasua daukagu, non hiztun bakarra jasoz biltzen den elkarriketa telefonoz beste aldera dagoena ez dugulako ikusten. Bestalde, egia da normalean soilik bat edo bi lagun entzuteko denbora izaten dela. Beraz, taldeko elkarriketa-hizkuntza definitzerakoan, une horretan hizketan ari denaren hizkuntza hartzen dugu kontuan talde osoarentzat.

Azkenik, gerta daiteke pertsona batek hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea bere jardunean. Kasu horietan, hizkuntza nagusia jasotzen dugu, gehien erabiltzen duena alegia.

Herriko biztanleen erabilera baino gehiago, herriko kaleetakoa

Azaltzen ari garen metodologia honek badu muga bat: ezin da ziurtatu kalean hizketan ari diren hiztun guztiak herrikoak direnik. Horregatik, ez da egokia neurtutakoa herriko biztanleen hizkuntza-erabilera dela esatea, izan ere, neurtutakoa herriko kaleetan jaso den erabilera da. Dena den, herrikoen erabilerara hurbiltzeko asmoz, kasu batzuetan nabarmen kanpotarrak (turistak) direnen elkarriketak modu berezitan jaso ditugu.

Erabilera-datuen neurketek bere zailtasuna ere badutela gogoan izan behar da, hizkuntza-erabilera aldakorra den heinean. Beraz, kontuan izan behar da datu adierazgarriak jasotzen badira ere, euskararen kale-erabilera hori neurri batean aldagarria dela. Izan ere, hizkuntza-erabilera ez da aldagai egonkorra ezta indibiduala ere; une bakoitzeko egoerak, solaskideek eta testuinguruak baldintzatzen baitute. Horren arrazoia ulargarria da: kalean noiz norekin topo egingo dugun aurreikusi ezin daitekeenez, euren jardura neurtzen zaien hiztunak ez dira beti berak eta horrek herriko euskararen kale-erabileraren datua aldarazi dezake. Muga hori gaingitzeko da, besteak beste, bereziki interesgarria maiztasun jakin batekin neurketak egin eta joera nagusiei erreparatzea. Hala eta guztiz ere, metodologia honek emaitzetatik zenbait ondorio orokor ateratzea bermatzen du.

Aztergaiak eta datuen adierazgarritasuna

Erabilera datuak hiztunen ezaugarriekin aztertuko dira, hala, erabilera zenbatekoa den jakiteaz gain, hiru aztergai hauek euskararen erabilera duten eragina ezagutuko dugu: sexua, haurren presentzia eta neurtu diren taldeen adin-osaketa.

Emaitzak aztertzerakoan luginaren tamaina izango dugu kontuan, luginak gutxieneko kopuru bat bete beharko du aldagai horren eragina aztertu ahal izateko. Izan ere, aldagaia zenbat eta zehatzagoa izan, lagina txikiagoa izango da eta datuek adierazgarritasuna galduko dute. Esaterako, behatutako hiztunen adina taldeka banatzeko behar besteko lagina (neurtutako pertsona-kopurua) izango dugu, baina adin-talde bakoitzean sexuaren arabera azterketa egiteko ez, aldagai bat zenbat eta gehiago deskonposatu, orduan eta lugin txikiagoa baitugu emaitzen irakurketa egiteko.

2.2 GUNE MUGATUETAKO HIZKUNTZEN ERABILERAREN NEURKETAREN METODOLOGIAREN BEREZITASUNAK

Hizkuntzen Erabileraren Euskal Herriko Kale Neurketan erabiltzen den metodologia oinarrian egon bada ere, herri batzuetako datu bilketa egiterakoan moldaketa batzuk egin behar izan dira. Izan ere, neurtu nahi diren herri batzuk hiztun gutxi dituzten eremuak dira eta ondorioz, beren berezitasunak direla medio, hizkuntzen erabilera neurtzerakoan Kale Neurketaren metodologia ezaugarriak egokitu egin behar izaten dira.


“Gune mugatu” izenez deitzen diegu eremu horiei eta **hiztun gutxi dituzten espazio irekiak** barnean biltzen ditugu bertan: herri txikiak, ikastolako jolaslekuak, ekitaldiren bat... Aipaturiko eremu horiek azaleratzen diguten zailtasunik handiena, eremu hauen txikitasuna kontuan izanik, datuak biltzerakoan diskrezioa lortzea izaten da. Hain zuzen ere, Kale Neurketaren oinarritzko baldintza hiztunek behatuak izaten ari direla ez jakitea da informazio horrek sor dezakeen ohiko hizkuntza-portaeren aldaketak saihestu nahian.

Mugikorreko aplikazioa

UEMAko udalerrietan eta Tolosaldean egindako ikerketan, telefono mugikorreko aplikazio baten bidez jaso dira kalean entzundako elkarrizketak. Modu horretan, diskrezioan irabaziz, herritarrek ez dute jakin neurtzailerik egon ote den edota ez dute jakin hizkuntza-erabilera behatzen ari zirenik. Hau da, neurtzailearen lana ez da agerian gelditzen, eta mugikorrarekin zerbaitetan dabilela soilik ikusi dute behatuek.

Mugikorrean hiztunen honako ezaugarri hauek jasotzen dira: sexua, haurren presentzia eta neurtu diren taldeen adin-osaketa. Informazio hori jasoz hiru aldagai horiek euskararen erabileran zein eragin duten neurtzen dugu.

Neurraldi guztietan modu berean jasotzen da informazioa. Ikus ondoren mugikorreko aplikazioaren bi irudi:



← **Elkarriketa: 1/0**

Euskara

	Ema	Giz
Haurrak (2-14)	1	1
Gazteak (15-24)	0	0
Heldu-gazteak (25-44)	0	0
Heldu-nagusiak (45-64)	0	0
Adinekoak (65etik gora)	0	0

Ez / Bai

Haurrak hitz egiten? ☒

EUSKARAZ ERE BAI GAZTELANIAZ ERE BAI
FRANTSESEZ ERE BAI

Oharrak

Laguntzailea

Gune mugatuetako zailtasunak gainditzeko hartzen den beste neurri bat hiztun gutxiko eremu horretako pertsona batek (herritarra, irakaslea, ikaslea...) neurtzailearekin batera neurketa egitea da. Hain zuzen ere, neurtzailea laguntzailearen ezagun gisa aurkez daiteke behatuen aurrean eta ez bertakoak behatzera datorren pertsona arrotz moduan. Horrela, diskrezioan irabazten dugu.

UEMA eta Tolosaldeko hizkuntza-erabileraren Kale Neurketari dagokionez, neurtzaile-sarea UEMAk kudeatu du, eta herri gehienetan bertakoez osatutako bikoteek behatu dute beren herriko hizkuntza-erabilera. Diskrezioari begira, neurri hori hartzea oso aberasgarria izan da ikerketarentzat, batez ere herri txikietan kanpoko norbaitzuek bertako kaleetan paseatuz herritarren elkarrizketei erreparatzea bortitza izan liteke eta.

2.3 “UEMA-TOLOSALDEA, 2021” NEURKETAREN FITXA TEKNIKOA

Herriak

Neurketa hau egiteko, UEMA osatzen duten udalerri guztiak¹ behatu nahi izan dira, eta baita UEMAkoak ez diren Tolosaldeko beste 6 herri ere. Guztira 93 herriko datuak jaso dira, beraz (Ikus 1. Taulan behaketa egin den udalerrien zerrenda, herrialde eta eskualdearen arabera antolatuta).

Nolanahi ere, aipatu behar da 93 herri horietatik 14 udalerritan Soziolinguistika Klusterrak burutu duela ikerketa berezia udalerri horietako udalen eskariz. Txosten honetan udalerri horien guztietako datu nagusiak eskainiko dira.

Prozedurak

Aurreko puntuan azaldutako metodologiako xehetasun guztiak baliagarriak dira Hizkuntzen Erabileraren UEMAko eta Tolosaldeko Kale Neurketaren berri emateko ere. Gogoratu behar da, aurtengo edizioan, udalerri guztietan egin dela behaketa telefono mugikorreko aplikazioa erabiliz.

Ibilbideak

Arestian aurreratu moduan, ibilbide bakoitzaren nondik norakoa zehazterakoan eta definitzerakoan, herriko kalerik jendetsuenak biltzea izan da irizpide nagusia: plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa-kaleak, eta abar. Ibilbidearekin batera, neurketa egiteko egunak eta orduak ere zehaztu ditugu, eta horiek hautatzean, herriko biztanle guztiak (potentzialki, behintzat) neurtu ahal izatea izan da gure helburua; alegia, hautatutako egun eta orduetan herritar guztiak edukitzea neurtuak izateko aukera.

Irizpide horiekin, 2021eko *Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa UEMAko udalerrietan eta Tolosaldean* egiteko herri bakoitzean ibilbide bana antolatu da, nagusiki.

Landa-lana

Landa-lanari dagokionez, udalerri gehienetan 2021eko maiatzetan egin dira, nahiz eta Soziolinguistika Klusterraren ardurapean izan diren datu-bilketak irailean eta urrian egin diren. Azkenik, aipatu behar da Tolosan 2021eko abenduan egin dela landa-lana (Ikus 1. Taulan zerrenda zehatza).

Metodologikoki garrantzizkoa da gogoratzea herri bakoitzeko akats-tarteari 5 puntuko muga ezarri diola ikerketak, eta, helburu hori lortzeko adinako elkarrikeria-kopurua lortzea erronka handia izan dela datuak sendoak izan zitezen.

Baina, behatu diren 93 herri horien ezaugarriak askotarikoak dira, eta ezarritako helburu hori lortzeko prozedura ezberdina erabili behar izan da:

¹ UEMAn orotara 93 herri dira. Horietatik 8tan ezin izan da neurketarik egin, zenbait arazo tarteko: Bizkaiko Areatzan, Izurtzan eta Mañarian, Gipuzkoako Altzagan, Beizaman eta Orion, eta Nafarroa Garaiko Areson eta Basaburuan. Tolosaldeko 6 UEMAko kide ez diren 6 udalerritan egin da, ordea, neurketa.

Neurketa egunei eta orduei dagokienez, bi herri multzo egin dira, datuak ahalik eta modu eraginkorrenean jasotzeko asmoz: 3.000 biztanlez azpikoak eta hortik gorakoak. Salbuespenak salbuespen, horrela egin dira neurketak bi herri multzo horietan:

- 3.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak. Herri txikiak dira, beraz, kalean jende kopuru mugatua dabil, areago Covid-19ak eragindako egoeran. Hortaz, bilketa eraginkorra izan dadin, neurketa kopuru handiagoa egin da, baina denboran mugatua. Hala, astelehenetik larunbatera egunero egin dira neurketak, goiz eta arratsaldean egin dira gehienbat, eta igandean goizez. Hortaz, nagusiki, maiatzaren 3tik 16ra egin da bilketa, egunean ordubete jasota. Eta, datuak osatze aldera, asteburu bat erantsi da: maiatzaren 22a arratsaldean, eta maiatzaren 23a goizez.

Guztira, horrenbestez, 16 orduko neurketa egin da 3.000 biztanletik azpiko udalerrietan.

- 3.000 biztanle baino gehiagoko udalerriak. Herri horiek handiagoak direnez, kalean jende kopuru handiagoa izan ohi da, eta neurraldi bakoitzak aukera ematen du solaskaldi gehiago jasotzeko. Horregatik, neurketa kopurua txikiagoa da, baina denbora luzeagoa: aldiro bi ordu, eta bi aste. Aste bakoitzean asteazken arratsaldean bi ordu, larunbat goizean bi ordu, eta larunbat arratsaldean bi ordu. Maiatzaren 3ko, 10eko eta 17ko asteetan egin dira neurketak; guztira, beraz, 18 ordu.

Unibertsoa, lagina eta emaitzen adierazgarritasuna

- **Unibertsoa:** UEMA eta Tolosaldea osatzen duten 93 herrietako kaleetan entzun daitezkeen elkarrizketak².
- **Lagina:** behaketa egin dugun bitartean behatu ditugun **71.054 elkarrizketek** eta horietan solaskide izan diren **227.923 solaskidek**³ osatu dute lagina⁴.
- **Akats-tartearen kalkulua** (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria): Akats-tartea bertakoen datuekin kalkulatu dugu. $\pm 0,37\%$ koa da elkarrizketen lagin osoarentzat, $95,0\%$ ko konfiantza mailan.

2.4 OHAR METODOLOGIKOAK

2.4.1 Behatutako udalerriak

Hurrengo orrialdeetan agertuko diren datuak interpretatzeko orduan garrantzitsua da ondorengo ohar hauek kontuan izatea. Izan ere, hasiera batean UEMA eta Tolosaldeko herri guztietan behaketa lanak egitea aurreikusi bazen ere, arrazoi ezberdinak tarteko UEMA eta Tolosaldeko hizkuntza-erabilera orokorrak ezin izan dira udalerri guztietan neurtu. Azterketa orokor hori 93 herrietako hizkuntzen erabileraren datuekin egin da, alegia, UEMAko eta Tolosaldeko 29 herrietako eta UEMAko beste 64 herrietako datuekin (Ikus 1 Taula).

Nolanahi ere, Tolosaldeko 29 herrietan datuak biltzeko aukera izan dugun arren, ezin izan dugu hala egin UEMA osatzen duten herri guztietan. Zailtasun ezberdinak tarteko, honako

² Kontuan hartu arestian aipatutako salbuespenak.

³ Datu honek ez du esan nahi ia 230.000 pertsona ezberdinen hizkuntza-erabilera behatu denik. Gerta liteke solaskideren batzuk behin baino gehiagotan behatu izana. Neurraldi batean solaskide-talde bera modu berean hitz egiten behatu bada, behin bakarrik jasotzen da datua; baina beste neurraldiren batean solaskide-talde bera modu berean hitz egiten entzunez gero, beste talde bat bailitzan datu berri gisa jasotzen dugu.

⁴ EUSTAT eta NEI, Biztanleria eta Etxebizitzaren Zentsuaren arabera 2016an UEMAko eta Tolosaldeko 93ri horietan 264.251 herritar bizi ziren.


zortzi herriotan ezin izan da behaketarik egin: Bizkaian Areatza, Izurtzan eta Mañarian, Gipuzkoan Altzagan, Beizaman eta Orion eta Nafarroa Garaian Areson eta Basaburuan.

Azkenik, aipagarria da, Soziolinguistika Klusterrak egin duela Hizkuntzen erabileraren Kale Neurketa zenbait udalerritan, udalerri horietako udalek azterketa berezia egiteko, hala eskatuta. Beraz, udal horietako datu orokorrak kontuan izango dira analisisia orokorra egiteko, baina horrez gain, azterketa berezia ere egingo da udalerri horietan. Ondoren zehazten diren udalerrietan egin du behaketa Soziolinguistika Klusterrak:⁵

- Bizkaian: Bermeon eta Larrabetzun.
- Gipuzkoan: Anoetan, Antzuolan, Azpeitian, Deban, Oiartzunen, Oñatin, Usurbilen, Villabona-Amasan, Zarautzen eta Zumaiian.
- Nafarroan: Arbizon eta Etxarri Aranzatzen.

Gogoratu behar da, arestian esan bezala, akats-tartea 5 puntura jaisteko helburuak ere erronka berezia planteatu duela. Eta, azpimarragarria da udalerri guztietan egindako behaketan akats-tartea % 3 baino txikiagoa izatea lortu dela, honako lau udalerri hauetan izan ezik: Arama (% 4,7), Ajangiz (% 4,8), Arantzazu (% 5,3) eta Araitz (% 6,3).

1. Grafikoa: "UEMA eta TOLOSALDEKO HIZKUNTZEN ERABILERAREN KALE NEURKETA" IKERKETAREN BAITAN UEMAK eta SLKk BEHATUTAKO UDALERRIAK. 2021



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, UEMA eta Tolosaldea 2021.

⁵ Udalerrri horietako emaitzak berariazko txosten banatan eskainiko dira.

**1. Taula: "UEMA eta TOLOSALDEKO HIZKUNTZEN ERABILERAREN KALE NEURKETA"
IKERKETAREN BAITAN BEHATU DIREN HERRIA eta BEHAKETA DATA. 2021**

Herrialdea	Eskualdea	Udalerria ⁶	DATU- BILKETA NORK	DATU- BILKETA NOIZ
Araba	Gorbeia Inguruak	Aramaio	UEMA	Maiatza
Bizkaia	Arratia Nerbioi	Arantzazu	UEMA	Maiatza
		Arteaga-Gaztelu-Elexabeitia	UEMA	Maiatza
		Dima	UEMA	Maiatza
		Igorre	UEMA	Maiatza
		Orozko	UEMA	Maiatza
		Otxandio	UEMA	Maiatza
	Bilbo Handia	Larrabetzu	SLK	Iraila-Urria
	Durangaldea	Atxondo	UEMA	Maiatza
		Mallabia	UEMA	Maiatza
	Gernika-Bermeo	Ajangiz	UEMA	Maiatza
		Bermeo	SLK	Iraila-Urria
		Busturia	UEMA	Maiatza
		Ea	UEMA	Maiatza
		Muxika	UEMA	Maiatza
	Lea Artibai	Amoroto	UEMA	Maiatza
		Aulesti	UEMA	Maiatza
		Berriatua	UEMA	Maiatza
		Gizaburuaga	UEMA	Maiatza
		Lekeitio	UEMA	Maiatza
		Markina-Xemein	UEMA	Maiatza
		Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz	UEMA	Maiatza
		Ondarroa	UEMA	Maiatza
		Ziortza-Bolibar	UEMA	Maiatza
	Plentzia-Mungia	Bakio	UEMA	Maiatza
		Gatika	UEMA	Maiatza
Gipuzkoa	Debabarrena	Deba	SLK	Iraila-Urria
		Mendaro	UEMA	Maiatza
		Mutriku	UEMA	Maiatza
	Debagoiena	Antzuola	SLK	Maiatza
		Bergara	UEMA	Iraila-Urria
		Elgeta	UEMA	Maiatza
		Oñati	SLK	Iraila-Urria
	Donostialdea	Oiartzun	SLK	Iraila-Urria
		Usurbil	SLK	Iraila-Urria
	Goierri	Arama	UEMA	Maiatza
		Ataun	UEMA	Maiatza
		Ezkio-Itsaso	UEMA	Maiatza
		Gabiria	UEMA	Maiatza
		Gaintza	UEMA	Maiatza
		Idiazabal	UEMA	Maiatza
		Itsasondo	UEMA	Maiatza
		Segura	UEMA	Maiatza

6 * Ikurra dutenak UEMAko kide ez badira ere, ikerketa honetan behatu diren 6 udalerriak dira: Abaltzisketa, Albiztur, Asteasu, Belauntza, Berrobi eta Larraul.

	Tolosaldea	Zaldibia	UEMA	Maiatza
		Zerain	UEMA	Maiatza
		Abaltzisketa*	UEMA	Maiatza
		Aduna	UEMA	Maiatza
		Albiztur*	UEMA	Maiatza
		Alegia	UEMA	Maiatza
		Alkiza	UEMA	Maiatza
		Altzo	UEMA	Maiatza
		Amezketza	UEMA	Maiatza
		Anoeta	SLK	Iraila-Urria
		Asteasu*	UEMA	Maiatza
		Baliarrain	UEMA	Maiatza
		Belauntza*	UEMA	Maiatza
		Berastegi	UEMA	Maiatza
		Berrobi*	UEMA	Maiatza
		Bidania-Goiatz	UEMA	Maiatza
		Elduain	UEMA	Maiatza
		Gaztelu	UEMA	Maiatza
		Hernalde	UEMA	Maiatza
		Ibarra	UEMA	Maiatza
		Ikaztegieta	UEMA	Maiatza
		Irura	UEMA	Maiatza
		Larraul*	UEMA	Maiatza
		Leaburu	UEMA	Maiatza
		Legorreta	UEMA	Maiatza
		Lizartza	UEMA	Maiatza
		Orendain	UEMA	Maiatza
		Orexa	UEMA	Maiatza
		Tolosa	UEMA	Abendua
		Villabona-Amasa	SLK	Iraila-Urria
		Zizurkil	UEMA	Maiatza
	Urola-Kostaldea	Aizarnazabal	UEMA	Maiatza
		Azpeitia	SLK	Iraila-Urria
		Errezil	UEMA	Maiatza
		Getaria	UEMA	Maiatza
		Zarautz	SLK	Iraila-Urria
		Zestoa	UEMA	Maiatza
		Zumaia	SLK	Iraila-Urria
Nafarroa Garaia	Ipar-Mendebaldea	Araitz	UEMA	Maiatza
		Arantza	UEMA	Maiatza
		Arbizu	SLK	Iraila-Urria
		Baztan	UEMA	Maiatza
		Bera	UEMA	Maiatza
		Etxalar	UEMA	Maiatza
		Etxarri Aranatz	SLK	Iraila-Urria
		Goizueta	UEMA	Maiatza
		Igantzi	UEMA	Maiatza
		Larraun	UEMA	Maiatza
		Leitza	UEMA	Maiatza
		Lesaka	UEMA	Maiatza

2.4.2 Bilakaeraren azterketa

Arestian esan bezala, ikerketa honek aurrekaria du 2017an egindako behaketan. Beraz, aurtengo edizio honetan hizkuntzen erabileraren bilakaeraren berri emateko modua izango da. Nolanahi ere, oso kontuan izan behar da behaketak ez direla udalerri berberetan egin bi urteotan. Alegia, 2017an behatutako zenbait udalerri ez dute 2021ean parte hartu, eta, alderantziz, 2021koan badira 2017an parte hartu ez zuten udalerriak.

Horrela ba, azterketa honetan bilakaerari buruzko datuak ematerakoan, erreferentzia egingo zaie soilik bi edizioetan parte hartu duten udalerriei.

- Honakoak dira 2021ean lehendik zeuden udalerrietara bildu diren 20 udalerriak: Bizkaiko Arantzazu, Arteaga-Gaztelu-Elexabeitia, Dima, Orozko, Atxondo, Mallabia, Ajangiz, Busturia, Munitibar-Arbatzegi, Gerrikaitz eta Ziortza-Bolibar; Gipuzkoako Mendaro, Arama, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Larraul eta Getaria; eta Nafarroako Lesaka.
- Era berean, esan behar da, 2021eko edizio honetan ez dugula 2017an parte hartu zuten bi udalerriko daturik, Nafarroako Areson ez zelako behaketarik egin, eta Gipuzkoako Orion, behaketa egin arren, jasotako datuak ezin izan direlako prozesatu⁷.

Horrela bada, ikerketara 2021ean neurtu diren udalerri guztiak 2017an neurtu ez zirenez ezinezkoa da udalerri guztien taldearen bilakaeraren berri ematea; alegia, bilakaera-datuak soilik erreferentzia egingo diete bi neurraldietan parte hartu duten 74 udalerriei. Ondoko zerrendan ikus daiteke zerrenda hori:

- Araba: Aramaio (Gorbeia Inguruak)
- Bizkaia:
 - Igorre, Otxandio (Arratia Nerbioi)
 - Larrabetzu (Bilbo Handia)
 - Bermeo, Ea, Muxika (Gernika-Bermeo)
 - Amoroto, Aulesti, Berriatua, Gizaburuaga, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa (Lea Artibai)
- Gipuzkoa:
 - Deba, Mutriku (Debabarrena)
 - Antzuola, Bergara, Elgeta, Oñati (Debagoiena)
 - Oiartzun, Usurbil (Donostialdea)
 - Ataun, Ezkio-Itsaso, Itsasondo, Segura, Zaldibia, Zerain (Goierrri)
 - Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza*, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Legorreta, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Villabona-Amasa, Zizurkil (Tolosaldea)
 - Aizarnazabal, Azpeitia, Errezil, Zarautz, Zestoa, Zumaia (Urola-Kostaldea)
- Nafarroa Garaia:
 - Araitz, Arantza, Arbizu, Baztan, Bera, Etxalar, Etxarri Aranatz, Goizueta, Igantzi, Larraun, Leitza (Ipar-Mendebaldea)

⁷ Kasu honetan, esan behar da mugikorrek aplikazioaren bidez jaso ordez, datuak eskuz bildu zirela. Horrek oztopatu du, momentuz, datu horiek gainerako udalerrietakoekin batera aztertzea.


2.5 LAGINAREN OSAERA

Ikerketaren emaitzak aurkezten hasi aurretik, garrantzitsua da unibertsoaren ordezkagarritasunaren inguruko gogoeta egitea. Bi zatitan bereizi dugu. Alde batetik, ikerketan sarturiko herriek zer ikuspegi eskaintzen duten azpimarratu nahi dugu gerturatuko garen errealitatea zein den jakin dezagun. Beste alde batetik, herrietako biztanleriaren profila alderatuko dugu behatu ditugun solaskideen (laginaren) profilarekin.

2.5.1 Herrien ordezkagarritasuna

Gure ikerketarako kontuan hartu ditugun herriek zein euskara gaitasun dute? Zenbatekoa da beren biztanle kopurua? Zein herrialdeetakoak dira? Hiru aldagai horien arabera sailkatu ditugu gure ikerketako herriak, 2017ko ikerketan egin bezala, izan ere, emaitzen analisia ere, hiru aldagai horien gurutzaketak eginez osatuko dugu.

2. Grafikoa: IKERKETAREN BAITAN BEHATU DIREN HERRIAK, 3 ALDAGAIEN ARABERA.
UEMA eta Tolosaldea, 2021



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, UEMA eta Tolosaldea 2021.

Lehenengo grafikoan ikus daitekeenez, ikerketan sartu diren herri gehienak Gipuzkoakoak dira, % 60,0 - % 79,9 bitarteko euskara gaitasuna dutenak, eta 1.000 - 3.000 biztanle bitarte dituztenak. Biztanleriaren arabera sailkapenean ikus daiteke kategorien arteko oreka handiena, nahiz eta nabarmen txikiagoa den 10.000 biztanletik gorako herrien kopurua. Beste muturrean, herriak beren herrialdearen arabera sailkatzerakoan lortzen da desorekarik handiena (Gipuzkoako herriak dira nabarmen gehienak).

2. Taula: IKERKETAREN BAITAN BEHATU DIREN HERRIAK, ALDAGAIEN ARABERA SAILKATUTA. UEMA eta Tolosaldea, 2021

		Herri kop.	Herriak
Herrialdea	Araba	1	Aramaio
	Bizkaia	25	Ajangiz, Amoroto, Arantzazu, Arteaga-Gaztelu-Elexabeitia, Atxondo, Aulesti, Bakio, Bermeo, Berriatua, Busturia, Dima, Ea, Gatika, Gizaburuaga, Igorre, Larrabetzu, Lekeitio, Mallabia, Markina-Xemein, Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz, Muxika, Ondarroa, Orozko, Otxandio, Ziortza-Bolibar.
	Gipuzkoa	55	Abaltzisketa, Aduna, Aizarnazabal, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Antzuola, Arama, Asteasu, Ataun, Azpeitia, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bergara, Berrobi, Bidania-Goiatz, Deba, Elduain, Elgeta, Errezil, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Gaztelu, Getaria, Hernialde, Ibarra, Idiazabal, Ikaztegieta, Irura, Itsasondo, Larraul, Leaburu, Legorreta, Lizartza, Mendaro, Mutriku, Oiartzun, Oñati, Orendain, Orexa, Segura, Tolosa, Usurbil, Villabona-Amasa, Zaldibia, Zarautz, Zerain, Zestoa, Zizurkil, Zumaia.
	Nafarroa Garaia	12	Araitz, Arantza, Arbizu, Baztan, Bera, Etxalar, Etxarri Aranatz, Goizueta, Igantzi, Larraun, Leitza, Lesaka.
Euskara-gaitasuna	% 60 - % 79,9	41	Alegia, Anoeta, Antzuola, Arantzazu, Arbizu, Arteaga-Gaztelu-Elexabeitia, Atxondo, Bakio, Baztan, Bera, Bergara, Bermeo, Berriatua, Busturia, Deba, Elgeta, Etxalar, Etxarri Aranatz, Gatika, Ibarra, Igorre, Ikaztegieta, Irura, Itsasondo, Larrabetzu, Legorreta, Lesaka, Mallabia, Markina-Xemein, Mendaro, Oiartzun, Oñati, Ondarroa, Orozko, Otxandio, Tolosa, Usurbil, Villabona-Amasa, Zarautz, Zizurkil, Zumaia.
	% 80 - % 89,9	34	Aizarnazabal, Alkiza, Altzo, Araitz, Arama, Aramaio, Asteasu, Ataun, Aulesti, Azpeitia, Belauntza, Berrobi, Bidania-Goiatz, Dima, Ea, Ezkio-Itsaso, Getaria, Gizaburuaga, Hernialde, Idiazabal, Larraul, Larraun, Leaburu, Leitza, Lekeitio, Lizartza, Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz, Mutriku, Muxika, Orendain, Segura, Zaldibia, Zestoa, Ziortza-Bolibar.
	≥ % 90,0	18	Abaltzisketa, Aduna, Ajangiz, Albiztur, Amezketeta, Amoroto, Arantza, Baliarrain, Berastegi, Elduain, Errezil, Gabiria, Gaintza, Gaztelu, Goizueta, Igantzi, Orexa, Zerain.
Biztanleria kopurua	≤ 499	24	Abaltzisketa, Aduna, Ajangiz, Albiztur, Alkiza, Altzo, Amoroto, Arama, Arantzazu, Baliarrain, Belauntza, Elduain, Gaintza, Gaztelu, Gizaburuaga, Hernialde, Ikaztegieta, Larraul, Leaburu, Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz, Orendain, Orexa, Zerain, Ziortza-Bolibar.
	500 - 999	18	Aizarnazabal, Amezketeta, Araitz, Arantza, Arteaga-Gaztelu-Elexabeitia, Aulesti, Berrobi, Bidania-Goiatz, Ea, Errezil, Etxalar, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Goizueta, Igantzi, Itsasondo, Larraun, Lizartza.
	1.000 - 2.999	31	Alegia, Anoeta, Antzuola, Aramaio, Arbizu, Asteasu, Ataun, Atxondo, Bakio, Berastegi, Berriatua, Busturia, Dima, Elgeta, Etxarri Aranatz, Gatika, Getaria, Idiazabal, Irura, Larrabetzu, Legorreta, Leitza, Lesaka, Mallabia, Mendaro, Muxika, Orozko, Otxandio, Segura, Zaldibia, Zizurkil.
	3.000 - 9.999	13	Baztan, Bera, Deba, Ibarra, Igorre, Lekeitio, Markina-Xemein, Mutriku, Ondarroa, Usurbil, Villabona-Amasa, Zestoa, Zumaia.
	≥ 10.000	7	Zarautz, Tolosa, Bermeo, Azpeitia, Bergara, Oñati, Oiartzun.

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, UEMA eta Tolosaldea 2021.


2.5.2 Behatutakoen ordezkagarritasuna

Aldi berean, nolakoak dira behatutako 71.054 elkarrizketa eta horietan solaskide izan diren 227.923 herritarren ezaugarriak? Gure azterketarako laginaren osaerari erreparatzea garrantzitsua da UEMAko eta Tolosaldeko udalerrietako biztanleen ezaugarriak modu berean bildu ote diren jakiteko.

Horrela, laginaren osaera eta biztanleen adin-tarteen zein sexuaren pisuaren proportzionaltasunaren alderaketa neurri batean da kontuan hartzekoa, izan ere, ez baita bere horretan gure helburua herritarren erabileraren argakia ateratzea, baizik eta UEMA eta Tolosaldeko udalerrietako kaleetan entzuten den erabilera neurtzea. Kaleetan entzuten diren elkarrizketak ez dira soilik herritarren artekoak izaten, eta elkarrizketetan parte hartzen duten pertsonak ez dute zertan herritarrek dituzten ezaugarri berberak izan beharrik.

a) Adin-tarte osaera

3. GRAFIKOA eta TAULA: LAGINAREN ADIN-TARTE OSAERA, BIZTANLERIAREKIN ALDERATUZ. UEMA eta Tolosaldea 2021 ()




	2-14		15-24		25-39		40-64		> 64		Guztira	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Behatutako solaskideak: Lagina	59.814	26,2	24.798	10,9	46.716	20,5	65.707	28,8	30.888	13,6	227.923	100,0
Biztanle	35.020	13,3	26.897	10,2	39.997	15,1	100.797	38,1	61.540	23,3	264.251	100,0

Iturria: Lagina: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, UEMA eta Tolosaldea 2021. Biztanleriarentzat: EUSTAT eta NEI, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikak. 2016, 2018.

Gure azterketetan, haurren presentzia handiagoa izan ohi da kalean, biztanleen proportzionaltasunak adierazten duena baino, eta aldi berean, heldu eta adineko gutxiago izan ohi dira behatuak proportzioan. Gertakari hori ohikoa da Euskal Herriko Kale Neurketan, haurren kaleko presentzia handiagoa baita biztanlerian hartzen duten pisuarekin alderatuz, eta aztergai ditugun udalerri hauetan ere gauza bera gertatzen da. Ondorioz, kontuan hartzekoak dira adin-talde bakoitzaren pisuak datuak aztertzerakoan.

Sexu-osaera

4. GRAFIKOA eta TAULA: LAGINAREN ETA BIZTANLERIAREN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. UEMA eta Tolosaldea. 2021



	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Guztira	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Behatutako solaskideak: Lagina	121.105	53,1	106.818	46,9	227.923	100,0
Biztanle	132.092	50,0	132.159	50,0	264.251	100,0

Iturria: Lagina: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, UEMA eta Tolosaldea 2021. Biztanleriarentzat: EUSTAT eta NEI, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikak, 2016, 2018.

Gure azterketetan, emakumezkoek pisu handiagoa hartu ohi dute gizonezkoek baino. Gertakari hori ohikoa da Euskal Herriko Kale Neurketan, emakumezkoen kaleko presentzia handiagoa baita biztanlerian hartzen duten pisuarekin alderatuz, eta aztergai ditugun udalerrietan ere gauza bera gertatzen da. Ondorioz, kontuan hartzekoak dira pisu horiek datuak aztertzerakoan.

2.5.3 Behatutako biztanleriaren ezaugarriak: sexua eta adina

Aurreko ikerketan egin bezala, 2021eko *Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketan*, hiztunen gaineko bi aldagai hartu dira kontuan: adina eta sexua.

Biztanleen adinari dagokionez, aipagarria da, ordea, 2021. edizio honetan, berrikuntza metodologiko garrantzizkoa egin duela ikerketak. Jakina denez, honako lau adin-talde hauetan banatuta aztertu izan dira datuak: haurrak (2-24 urte), gazteak (15-24), helduak (25-64) eta adinekoak (65etik gorakoak). Banaketa horrek emaitza oso interegarriak eskaini izan dituen arren, helduen taldea zabalegia delako ideia nagusitu eta hobekuntza proposatu da: errealitatearen bereizmen hobeagoko irudia ateratzeko helburuarekin, 25-64 urte arteko helduen taldea honako bi hauetan banatu da: 25-39 urte bitarteko heldu gazteen taldea eta 40-64 heldu nagusien taldea⁸. Beraz, 2021eko neurketa honetan lau adin-talde izan ordez, bost talde aztertuko dira.


Sexuaren aldagaiaren inguruan esan behar da lehendik ezarritako irizpideari jarraitu zaiola, hots, bereiziz, emakumezkoa edo gizonezkoa den (neska, mutil) hizketaldietan parte hartzen ari denak. Ikerketa honek banaketa ez-binarioaren gaineko teoriak errespetatzen baditu ere, ez du modurik gai horren inguruko zehaztapenik egiteko, diskrezioa arau nagusia izanik ezin baitzaie ezer galdetu hizketaldietan parte hartzen dutenei. Beraz, datuen azterketa emakumezkoen eta gizonezkoen arteko banaketa mantenduz egingo da.

⁸ Aipagarria da Soziolinguistika Klusterrak 2021ean egindako Hizkuntzen Erabileraren Kale-neurketetan, helduen taldeko banaketa zertxobait desberdina izan dela: hiztunak 25-44 eta 45-64 arteko taldetan banatu dira.

3 ERABILERA OROKORRA UEMAKO UDALERRIETAN ETA TOLOSALDEAN

3.1 DATU OROKORRA 2021

5. GRAFIKOA eta TAULA. HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA OROKORRA. UEMA eta TOLOSALDEA, 2021 (%)




Hizkuntza	%
Euskaraz	61,1
Gaztelaniaz	36,9
Frantsesez	0,2
Beste hizkuntzetan	1,8
GUZTIRA	100,0
Oinarria (behatutako solaskideak)	227.923
Oinarria (behatutako herriak)	93

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, UEMA eta Tolosaldea 2021.

3.2 HIZKUNTZEN ERABILERAREN BILAKAERA⁹ 2017-2021

6. GRAFIKOA eta TAULA. HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA OROKORRA BILAKAERA. UEMA eta TOLOSALDEA (74 udalerritan), 2017-2021 (%)




	2017 %	2021 %
Euskaraz	61,5	61,5
Gaztelaniaz/Frantsesez	36,5	36,6
Beste hizkuntzetan	2,0	1,9
	100,0	100,0
<i>Oinarria (behatutako solaskideak)</i>	<i>156.132</i>	<i>194.150</i>

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, UEMA eta Tolosaldea 2021.

⁹ Gogoan izan, bilakaerako datuak 2017ko eta 2021eko bi neurraldietan parte hartu duten 74 udalerriei egiten dietela erreferentzia, metodologiaren atalean azaldu den moduan (ikus 2.4.2 atala).

3.3 HERRIETAKO BIZTANLERIA ETA EUSKARA GAITASUNA

7. GRAFIKOA eta TAULA. HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA OROKORRA, HERRIETAKO EUSKARA GAITASUNAREN ARABERA. UEMA eta TOLOSALDEA, 2021 (%)




	% 60,0 - % 79,9	% 80,0 - % 89,9	≥ % 90
Euskaraz	54,1	78,6	83,8
Gaztelaniaz	44,1	19,1	15,4
Frantsesez	0,2	0,2	0,2
Beste hizkuntzetan	1,8	2,1	0,6
<i>Oinarria (behatutako solaskideak)</i>	142.383	59.636	25.904
<i>Oinarria (behatutako herriak)</i>	41	34	18

Iturria: Erabilerarako: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, UEMA eta Tolosaldeako udalerriak 2021. Euskara gaitasunerako: EUSTAT eta NEI, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikak, 2016 eta 2018.

3.4 ERABILERA OROKORRA HERRIETAKO EUSKARA GAITASUNAREN ARABERA. BILAKAERA 2017-2021

8. GRAFIKOA eta TAULA. ERABILERA OROKORRA HERRIETAKO EUSKARA GAITASUNAREN ARABERA. UEMA eta TOLOSALDEA, BILAKAERA 2017-2021 (%)




	% 60 - 79,9		% 80,0 - 89,9		> % 90,0	
	2017	2021	2017	2021	2017	2021
Euskaraz	53,9	55,0	82,1	79,2	86,4	83,3
Gaztelaniaz/Frantsesez	44,0	43,1	15,9	18,3	13,2	16,3
Beste hizkuntzetan	2,0	1,9	2	2,2	0,4	0,7
<i>Oinarria (behatutako solaskideak)</i>	97.180	123.958	43.650	50.068	15.302	20.124

Iturria: Erabilerarako: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, UEMA eta Tolosaldeako udalerriak 2017, 2021. Euskara gaitasunerako: EUSTAT eta NEI, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikak, 2016 eta 2018.

3.5 ERABILERA OROKORRA HERRIETAKO BIZTANLE KOPURUAREN ARABERA

9. GRAFIKOA eta TAULA. HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA OROKORRA, HERRIETAKO BIZTANLE-KOPURUAREN ARABERA. UEMA eta TOLOSALDEA, 2021 (%)




	≤ 499	500 - 999	1.000 - 2.999	3.000 - 9.999	≥ 10.000
Euskaraz	81,8	83,5	64,2	62,9	54,4
Gaztelaniaz	17,2	15,7	34,1	35,1	43,3
Frantsesez	0,1	0,1	0,1	0,2	0,2
Beste hizkuntza batean	0,9	0,7	1,6	1,8	2,1
	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (behatutako solaskideak)</i>	24.666	27.114	69.172	57.333	49.638
<i>Oinarria (behatutako herriak)</i>	24	18	31	13	7

Iturria: Erabilerarako: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, UEMA eta Tolosaldeako udalerriak 2021. Euskara gaitasunerako: EUSTAT eta NEI, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikak, 2016 eta 2018.

3.6 ERABILERA OROKORRA HERRIETAKO BIZTANLE KOPURUAREN ARABERA. BILAKAERA 2017-2021

10. GRAFIKOA eta TAULA. HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA OROKORRA, HERRIETAKO BIZTANLE-KOPURUAREN ARABERA. UEMA eta TOLOSALDEA, bilakaera 2017-2021 (%)




		Euskaraz	Gaztelaniaz/ Frantsesez	Beste hizkuntzatan	Lagina
<500	2017	83,8	15,4	0,8	14.001
	2021	82,3	16,6	1,0	21.216
500-1.000	2017	81,3	18,2	0,5	19.848
	2021	85,2	14,0	0,7	24.133
1.000-3.000	2017	73,9	24,9	1,2	35.522
	2021	70,7	27,3	2,0	41.830
3.000-10.000	2017	64,8	33,1	2,0	51.277
	2021	62,8	35,4	1,8	57.333
>10.000	2017	50,7	43,9	2,4	35.484
	2021	54,4	43,5	2,1	49.638

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, UEMA eta Tolosaldeako udalerriak 2017, 2021.

4 EUSKAL HERRIA ETA ESKUALDE EUSKALDUNEN ARTEKO KONPARAKETAK

11. GRAFIKOA eta TAULA. UEMA eta TOLOSALDEKO EUSKARAREN ERABILERA OROKORRAREN ALDERAKETA, EUSKAL HERRIKO DATU OROKORRAREKIN ETA EUSKAL HERRIKO EUSKARAREN EZAGUTZA ALTUENENKO EREMUKO DATU OROKORRAREKIN (%)



	Euskararen kale-erabilera (%)
Euskal Herria 2016	12,6
Euskararen ezagutza altueneko eremua (> % 75,0) 2016	65,1
UEMA eta Tolosaldea 2021	61,5

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, UEMA eta Tolosaldea 2021.

5 HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERAKO HIZKUNTZA-ERABILERA

5.1 SEXUAREN ARABERAKO HIZKUNTZA-ERABILERA

12. GRAFIKOA eta TAULA. HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA SEXUAREN ARABERA. UEMA eta TOLOSALDEA, 2021 (%)




	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Euskaraz	61,7	60,3
Gaztelaniaz	36,6	37,3
Frantsesez	0,2	0,2
Beste hizkuntzetan	1,5	2,1
Guztira	100,0	99,9
<i>Oinarria (Behatutako solaskideak)</i>	<i>121.105</i>	<i>106.818</i>

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, UEMA eta Tolosaldea 2021.

5.2 HIZKUNTZEN ERABILERAREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA. BILAKAERA 2017-2021

13. GRAFIKOA eta TAULA. HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA SEXUAREN ARABERA. UEMA eta TOLOSALDEA, BILAKAERA 2017-2021 (%)




	Emakumezkoak		Gizonezkoak	
	2017	2021	2017	2021
Euskaraz	61,6	62,0	61,3	60,8
Gaztelaniaz/Frantsesez	36,8	36,4	36,3	36,9
Beste hizkuntzetan	1,6	1,6	2,4	2,2
Guztira	100,0	100,0	100,0	99,9
<i>Oinarria (Behatutako solaskideak)</i>	84.313	103.027	71.819	91.122

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, UEMA eta Tolosaldea, 2017, 2021.

5.3 ADINAREN ARABERAKO HIZKUNTZA-ERABILERA

14. GRAFIKOA eta TAULA. HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA ADINAREN ARABERA. UEMA eta TOLOSALDEA, 2021 (%)




	Haurrak 2-14	Gazteak 15-24	Heldu gazteak 25-39	Heldu helduak 40-64	Adinekoak >64
Euskaraz	75,7	65,6	62,9	50,1	51,5
Gaztelaniaz	22,5	32,9	33,9	47,6	48
Frantsesez	0,1	0,1	0,2	0,3	0,2
Beste hizkuntzetan	1,7	1,3	3,0	2,0	0,3
GUZTIRA	100	99,9	100,0	100,0	100,0
<i>Oinarria (behatutako solaskideak)</i>	59.814	24.798	46.716	65.707	30.888

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, UEMA eta Tolosaldea 2021.

5.3.1 Adin-talde bakoitzeko hizkuntza-erabilera, herrietako euskara-gaitasunaren arabera

15. GRAFIKOA eta TAULA. ADIN TALDE BAKOITZEKO EUSKARAREN KALE-ERABILERA, EUSKARA GAITASUNAREN ARABERA. UEMA eta TOLOSALDEA (%)




		Euskaraz	Gaztelaniaz	Frantsesez	Beste hizkuntzetan	GUZTIRA	Oinarria (behatutako solaskideak)
% 60,0 – % 79,9	Haurrak	70,5	27,8	0,1	1,6	100,0	36.206
	Gazteak	58,1	40,5	0,2	1,3	100,1	15.047
	Heldu gazteak	57,0	39,7	0,3	3,0	100,0	30.262
	Heldu nagusiak	42,4	55,3	0,2	2,1	100,0	40.206
	Adinekoak	43,2	56,2	0,2	0,4	100,0	20.662
% 80,0 – % 89,9	Haurrak	87,2	10,2	0,1	2,4	99,9	15.172
	Gazteak	84,0	14,3	0,0	1,7	100,0	7.228
	Heldu gazteak	77,3	19	0,2	3,5	100,0	11.242
	Heldu nagusiak	70,2	27,2	0,5	2,1	100,0	18.233
	Adinekoak	74,7	25	0,1	0,2	100,0	7.761
> % 90,0	Haurrak	94,0	5,2	0,3	0,5	100,0	8.436
	Gazteak	91,6	7,9	0,0	0,5	100,0	2.523
	Heldu gazteak	84,5	14,4	0,1	0,9	99,9	5.212
	Heldu nagusiak	70,8	28,3	0,3	0,6	100,0	7.268
	Adinekoak	71,0	28,6	0,4	0,0	100,0	2.465

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, UEMA eta Tolosaldea 2021

5.3.2 Adin-talde bakoitzeko hizkuntza-erabilera, herrietako biztanle-kopuruaren arabera

16. GRAFIKOA eta TAULA: ADIN TALDE BAKOITZEKO EUSKARAREN KALE-ERABILERA, BIZTANLERIAREN ARABERA. UEMA eta TOLOSALDEA, EUSKARAZ (%)




		Euskaraz	Gaztelaniaz	Frantsesez	Beste hizkuntzetan	GUZTIRA	Oinarria (behatutako solaskideak)
